



DEIALDIA

USA WINE TASTING EVENTS 2015

EEBB - Kalifornia / Texas

Lekua: San Francisco (Kalifornia) eta Houston (Texas) - EEBB.

Egunak: 2015ko irailaren 14tik 17ra - 38. astea - .

Sektorea: ardogintza industriako profesionalentzat.

Izena emateko epea: ostirala, 2015ko ekainaren 5a.

Parte-hartzearen prezioa: 995 € + BEZa (%21).

Parte-hartzeile kopurua, gehienez: 15.

Informazio gehiago: Tel.: 945 141 800
María Fdez. de Romarategui:
internacionalp@camaradealava.com

DEIALDI HONETAN:

USA Wine Tasting Events 2015

Programaren deskribapena

Parte-hartzearen prezioa eta eskainitako zerbitzuak

Parte-hartzeko baldintzak

Izena ematea

Izen-emate fitxa

Euskal Elikadura Industria kanpoan sustatzen laguntzeko ekintzen barruan, hainbat ekitaldi antolatu ditu Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak AEBetan, **Arabar Errioxako eta Txakolin** upategientzat, mendebaldeko kostako eta herrialdeko hegoaldeko merkatu nagusietan zentratuta.

Ekitaldiaren helburua da euren produktuak Kaliforniako eta Texaseko estatuetan sartu nahi dituzten upategientzako harreman plataforma bat sortzea.

USA WINE TASTING EVENTS 2015

AEBetako ardo merkatua oso lehiakorra da. Merkatu horretan sartzeko eta arrakasta edukitzeko faktore kritikoa erosle nagusiekin (inportatzaileak, banatzaileak, ardoen inguruko marketin enpresak eta txikizkari handiak) aliantzak bermatzea da.

Proiektu honen helburua da AEBetako mendebaldeko kostako eta hegoaldeko merkatuetan inportatzaile egokiak bilatzen laguntzea.

Horregatik, upategi parte-hartzaileen eta horien lehiarako abantailaren azterketa sakona sartzen da programan.

1. Oraingoan, AEBetako ardo merkatuan espezializatutako kontsultore bat egongo da, AEBetako inportatzaileak eta banaketa elkarrekin bilatzeko.
2. Kontsultoreak operazioetan zein banaketan, marketinean eta salmentetan 30 urtetik gorako esperientzia du.
3. Harreman estuak dituzte AEBetako inportatzaile eta banatzaile nagusiekin, eta horien eskakizunen inguruko ezagutza zuzena edukitzeko aukera ematen die horrek, bai eta haiei aukera berriak eskaintzeko ere.

Programaren deskribapena

[Egunak eta lekua](#)

[Parte-hartzaileak](#)

[Ekitaldia](#)

[Egunak eta lekua](#)

Programa honek **bi ekitaldi** ditu AEBetako bi hiritan: **San Frantziskon eta Houstonen** izango dira, 38. astean.

[Parte-hartzaileak](#)

10-12 erosle hiri bakoitzean. Erosle horiek inportatzaileei, banatzaileei, bitartekariei eta txikizkari handiei aholkuak emateaz arduratzen dira.

[Ekitaldia](#)

Hiri bakoitzeko leku zentriko batean izango da, eta erosleek erakusgai dauden ardoak dastatuko dituzte. **Euskal Herriko 15 upategi egongo dira, gehienez, ekitaldian euren produktuak erakusten.**

Erosle bakoitzak ardoen aurkezpen dokumentu bat jasoko du, ardoen prezioen finkatzeari buruzko orientabidearekin.

Inkesta bat ere jasoko dute, ekitaldiaren igarotzean zehar betetzekoa, ardoen inguruko euren iritzia eta horiek erosteko duten interesa jasotzeko.

Programak AEBetan ardoa saltzeko estrategiaren inguruko prestakuntza upategiei ere barne sartzen du.

Programaren deskribapena

[Upategien indarguneen azterketa eta balorazioa](#)

[Upategi bakoitzarentzat prezio eredu](#)

[Erosleei ardoak aurkeztea](#)

[Feedback pertsonalizatua](#)

[Ekintzen deskribapena](#)

1. Upategiek AEBetako merkatuan dituzten **indarguneen azterketa eta balorazioa**. Onartutako enpresa guztiek beharrezko informazioa eman beharko dute identifikazio horrekin laguntzeko, eta euren produktuen laginak bidali beharko dituzte AEBetara.
2. Prezio **eredu baten garapena upategi bakoitzarentzat**.
3. Ekitaldiak. Erosleei ardoak aurkeztea. Inportatzaileen aholkulariak eta bestelako agenteak egongo dira deituta ekitaldi bakoitzeko, 10-12. Produktuen aurkezpena egingo da, eta prezioaren inguruko informazioa emango zaie, erosteko erabakian laguntzeko. **Ardoen dastatzea** 60-90 minutukoa izango duela aurreikusten da.

Upategien eta erosleen arteko komunikazioa errazteaz arduratuko den jendea egongo da.

AEBetan esportazio-esperientzia handirik ez duten enpresei informazio praktikoa emateko ere bada ekitaldia, prezio estrategien arloan zentratuta.

Erosleek upategi bakoitzaren, aztertutako ardoaren kalitatearen, packagingaren eta prezioaren egokitasunaren inguruko balorazioa egingo dute.

4. Erosleek emandako datuen balorazioa. **Upategi bakoitzak bere produktuaren feedback pertsonalizatua** jasoko du.

Ardoak erosteko interesa duten erosleen jarraipena egingo da.

Ekitaldia baino lehen, ekintzen ordutegi zehatza bidaliko da.

Parte-hartzearen prezioa eta eskainitako zerbitzuak

Prezioa: 995 € + BEZa (%21)

Ekitaldien PRESTAKETA

Ekitaldietako LAGUNTZA

Parte-hartzearen prezioa

Euskal Herriko kalitatezko ardoen sustapen generikoa ere sartzen da ekintza honetan.

PREZIOA: 995 € + BEZa (%21).

Parte-hartze kuota ordainketa bakarran egingo da. Faktura eskaera onartu ondoren egingo da.

Eskeinitako zerbitzuak

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak honako zerbitzu hauek eskainiko ditu:

Ekitaldien PRESTAKETA:

- Parte hartzen duten upategien katalogoak gainbegiratu, euren indarguneak eta lehiarako abantailak identifikatzeko.
- Ondorengo hauen izapidetzea: etiketaren onarpenaren (COLA) exentzioaren eskaera inportatutako ardo bakoitzarentzat, laginak inportatzeko beharrezko diren zerga eta legezko dokumentuen betetzea.
- Upategi bakoitzetik AEBetako merkatuan arrakasta edukitzeko potentzial handiena duten 2-3 ardo identifikatu.
- Prezio eredu bat garatu ekoizle bakoitzarentzat, ekoizletik hasi eta azken bezerora arteko prezioa islatzen duena.
- Ekitaldiaren lekua ziurtatu.

- Ekitaldi bakoitzerako 10-12 erosle identifikatu eta ziurtatu; telefonoz eta posta elektronikoz jarraipena egin; gonbidatu zerrendaren kudeaketa.
- Salmenten aurkezpena osatu, erosleei upategiak aurkezteko.
- Tresna bat sortu, erosleen feedbacka lortzeko.

Ekitaldietako LAGUNTZA:

- Parte hartzen duten upategiek dituzten galderei erantzun, eta AEBetan ardoa saltzeko estrategiak eztabaidatu.
- Upategien ordezkarien eta erosle interesatuekin bitartekari lanak egin.
- Laguntza: ekitaldi bakoitzean bi ordezkari jarri, logistika kudeatzeko, ostalariak agurtzeko, galderei erantzuteko eta erosleen aldetik interesa eskatu eta ziurtatzeko.
- Erosleen iritzia jaso upategi bakoitzari buruz; ardoaren kalitateari, packagingari eta prezioari buruz.
- Inprimatutako materiala: ekitaldi bakoitzerako diseinu eta inprimaketa materialak.

Parte-hartzearen prezioa eta eskaintako zerbitzuak

[Ekitaldien ONDORENGO zerbitzuak](#)

[Sartzen ez diren zerbitzuak](#)

Ekitaldien ONDOREN:

- Jasotako informazioa antolatu eta aztertu, eta upategiei aurkeztu.
- Erosteke interesa agertu duten erosleen jarraipena egin.
- Upategiekiko feedbacka.
- Ekoizleak orientatu eta horien galderei erantzun.
- Ekoizleei AEBetako ardo-salmentaren negoziazioan lagundu.

Sartzen ez diren zerbitzuak

Salgaien garraioa. Inportazioa tokiko bazkidearen bitartez izapidetuko da.

2 fase:

- Ardoen hautaketa
- Ekitaldietarako laginak

Parte hartzeko baldintzak

[Joateko konpromisoa](#)

[Euskal Herrian egindako produktuak](#)

[Ebaluazio-inkesta](#)

EKITALDIEN AURRETIK:

- Eskatutako laginak bidali.
- Beharrezko informazioa eman, aholkularitza-enpresak upategiaren inguruko azterketa egin eta horren indarguneak eta lehiarako abantailak identifika ditzan.
- Enpresako ordezkari bat joateko eta kuota ordaintzeko konpromisoa; beraz, **Euskadiren pabiloian sartu izana jakinarazi eta gero ezin da ekintzan baja eman.** Ezinbesteko kasuetan soilik baloratuko ditu Eusko Jaurlaritzak enpresak emandako arrazoiak eta ordaindutakoaren zati bat itzultzea aztertu.

EKITALDIAK IRAUN BITARTEAN:

- Ikusgai jarriko diren produktuak **Euskal Herrian egindakoak** izango dira. Ezingo da, inolaz ere, beste autonomia erkidegoetako produkturik aipatu edo aurkeztu.
- Bi ekintzen ardura izatea.

EKITALDIEN ONDOREN:

- **Ebaluazio-inkesta** bete, eskatzen denean.

Izena ematea

[Izen-emate fitxa, behar bezala beteta](#)

[Ordainketa-egiaztagiria](#)

[Izena emateko azken eguna: 2015ko ekainaren 5a](#)

Leku-kopurua mugatua denez, parte hartu nahi izanez gero eskatutako agiriak lehenbailehen **945 143 156 fax zenbakira** edota **internacionalp@camaradealava.com** helbide elektronikora, **María Fdez. de Romarategui izenean**, bidaltzea gomendatzen dugu.

Enpresa parte-hartzaileen hautaketa izen-emate agirien jasotze hurrenkeraren arabera egingo da. Zure eskaera aitzat hartzeko, honako agiri hauek bidali behar dituzu adierazitako helbidera:

[1. Honekin batera doan izen-emate fitxa, behar bezala beteta.](#)

[2. Izen-emate kuotaren ordainketa-egiaztagiria.](#)

Ordainketa bankuko transferentzia bidez egingo da:

Kontzeptua: "Enpresaren izena + USA WINE TASTING EVENTS 2015".

Kontu zenbakia: ES24 2095 3150 2310 9095 1178 ARABAKO INDUSTRIA ETA MERKATARITZA-GANBERAren izenean.

Izena emateko azken eguna: ostirala, 2015ko ekainaren 5a.

ARABAKO INDUSTRIA ETA MERKATARITZA-GANBERAren Finantza Sailak **parte-hartzearen baieztapenaren ondoren bidaliko du dagokion zenbatekoaren faktura.**

GARRANTZITSUA:

Izen-ematea formalki eginda jotzeko, ESKATUTAKO DOKUMENTU GUZTIAK bidali beharko dira eta, ondorio guztietarako, izen-ematearen ordainketa eguna hartuko da izen-emate egun gisa.

Eskatutako dokumentuak bidaltzeak EZ DAKAR enpresaren parte hartzea; izan ere, gutxieneko enpresa-kopuru bat beharko da ekitaldia egiteko. Eusko Jaurlaritzak izen-ematea onartu den edo ez jakinaraziko du.

FAKTURA JASO ONDOREN, HAU DA, EKITALDIETAN PARTE HARTU IZANAREN JAKINARAZPENA, PARTE HARTZEARI UKO EGITEN DION ENPRESAK ORDAINDUTAKO GUZTIA (%100) GALDUKO DU. Ezinbesteko kasuetan bakarrik egongo da enpresak emandako arrazoiak aztertzeko eta ordaindutakoaren zati bat itzultzeko aukera.

Honako kasu hauetan bakarrik itzuliko da enpresek ordaindutakoa:

- Halabeharrez edo parte-hartzaile kopuru nahikoa ez edukitzeagatik, Eusko Jaurlaritzak azokan parte hartzeari uko egiten badio, enpresek eskubidea edukiko dute ordaindutako guztia (%100) itzul diezaieten.
- Enpresak ekitaldian parte hartzea ez bada egoki ikusten eta antolatzaileek ez badute parte-hartze hori aholkatzen.

Izen-emate fitxa

USA WINE TASTING EVENTS 2015

Eusko Jaurlaritzak Ameriketako Estatu Batuetako hainbat hiritan antolatutako ekitaldietan egon nahi dut.

Enpresaren izen soziala:

I.F.K.:

Helbidea:
P.K. – Herria:
Probintzia:

Tel:
Fax:

E-mail:
Web:

Urteko EKOIZPENA (botila kopurua):

Presentzia Ameriketako Merkatuan : **Bai** **Ez**

Baiezko kasuan, adierazi: **_estatua(k):**

_ importatzailea(k):

Ekitaldietan lagunduko duen pertsona:
Sakelako telefonoaren zenbakia: **E-mail:**

Dastaketan sartuko diren produktuak eta markak:
(Behin betikoak tokiko aditu batek baloratuko ditu)

Produktua	Marka

Data, sinadura eta enpresaren zigilua: